**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **02. Nekazaritza**<br>**02. *Agricultura*** | **02.** Nekazaritzako Garapena<br>**02.** *Desarrollo Agrario* | **530.102** Nekazaritzako Ustiategiak Arrazionaltzea eta Gaikuntza<br>**530.102** *Racionalización de Explotaciones y Capacitación Agraria* |

Azken urteotan Bizkaiko nekazaritzako ustiategi askok hobera egiteko joera agertu dute Europakoen pareko lehiakortasun mailara iritsi arte, batera gertatu diren bi faktore hauek euren alde izan dituztelako:

1) Baserritarrei informazioa eman zaie sistema eta teknika aurreratuenak erabiltzeak dakartzan aukera eta abantailei buruz.

2) “Nekazaritzako Ustiategiak hobetzeko Laguntza Plana”ren ezarpenak bide eman du baserrietan bestela nekez egin litezkeen inbertsioak egin daitezen ekoizpen-ondasunetan.

## 1. Lanbide-gaikuntza eta zabalkundea nekazaritzaren alorrean

Horien bitartez inbertsioa egiteko ahalegina ondo bideratu da, inbertsioak gure baldintzei egokituko zaizkiela bermatuz.

Baserriek bizi izan duten atzerapena eta bazterketa informazio faltari leporatu izan zaio.

“Zabalkundea informazioa da” deritzon hori aldakuntzak etorri ahala nekazariei horien berri ematean datza.

Ikerkuntzaren emaitzak hartzen dira oinarri, behin esperimentazioaren eta erabileraren bidez egiaztaturik daudenean. Emaitzok zabaltzen direnean modu errazean aurkezten zaizkio nekazariari, ondo ulertu behar baititu (bulgarizazioa).

Nekazaritzako Zabalkundean erabiltzen diren metodoak beste alor batzuetan erabiltzen direnen antzekoak dira.

En los últimos años, muchas explotaciones agrarias de Bizkaia han presentado una dinámica de evolución positiva hasta colocarse a nivel de competitividad con las europeas. La confluencia de dos factores ha incidido favorablemente a estos avances:

1) La información de que han dispuesto los baserritarras sobre las posibilidades y las ventajas que les ofrece la utilización de sistemas y técnicas vanguardistas.

2) La aplicación del “Plan de Ayudas para la Mejora de las Explotaciones Agrarias”, que está permitiendo a los caseríos el realizar inversiones en bienes de producción, que de otra forma difícilmente se hubiesen efectuado.

## 1. Capacitación Profesional y Divulgación en Materia Agraria

Esto ha hecho que el esfuerzo inversor vaya bien canalizado, garantizando su adaptación a nuestras condiciones.

La falta de información ha sido la causa a la que se ha achacado el retraso y postergación en que han estado sumidos los caserios.

“La Divulgación es información” trata de poner en conocimiento de la población agraria los avances, que a lo largo del tiempo se van generando.

Se basa en los resultados logrados por la investigación, contrastados por la experimentación y aplicación práctica. Estos resultados, objeto de divulgación, se presentan a el/la baserritarra de una forma sencilla (vulgarización) ya que deben ser comprendidos por éste.

Los métodos que se emplean en Divulgación Agraria son similares a los utilizados en otros sectores.

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **02. Nekazaritza**<br>**02. *Agricultura*** | **02.** Nekazaritzako Garapena<br>**02.** *Desarrollo Agrario* | **530.102** Nekazaritzako Ustiategiak Arrazionaltzea eta Gaikuntza<br>**530.102** *Racionalización de Explotaciones y Capacitación Agraria* |

– Batzuk baserri-aldeko herritar guztientzat dira, edukiaren aldetik oso zabalak dira. Horiek zabaltzeko komunikabide nagusiak erabiltzen dira: telebistako “Sustraia” saioa, irratsaioak, egunkarietako artikuluak, nekazaritzako aldizkariak (“Sustrai”), azokak, lehiaketak eta erakusketak.

– Beste batzuk ekoizpenaren arlo jakinetan dihardutenentzat egiten dira beren beregi. Mezuak kasu honetan ere espezializatuagoak dira. Baserritarrak gutun, zirkular, ohar eta zabalkunde-orriak jasotzen ditu etxean.

– Talde txikiagoekin erabiltzen diren metodoak eraginkorragoak izaten dira (nork erabakitzen du bere jarduera bera egiten dutenen taldera biltzea edo taldetik kanpo geratzea). Zabaltzen diren gaiak ere askoz zehatzagoak dira, bai ekoizpenaren faseetan bai teknikak erabiltzean.

Bestalde, baserritar taldeekin informazio-eztabaidarako bilerak egiten dira ere, eta teknika, metodo eta emaitzen erakustaldi teknikoak ere bai, bertaratutakoek proposatzen zaizkien berrikuntzak lanean ikusteko aukera izan dezaten.

Beste zabalkunde mota batzuetan metodo bi edo gehiago erabiltzen dira, adibidez alde-bidaiak egiten dira gure lurraldetik kanpoko interesguneetara, Barano Egunak, bilakaera eredugarria agertzen duten Bizkaiko ustiategietan.

Baserritarren zalantzak eta galderak norberaren baserrian bertan, eskualdeko nekazaritza-bulegoetan, telefonoz edo gutun pertsonalen bidez argitzen dira.

– Unos van dirigidos a toda la población rural, tienen una gran amplitud en su contenido. Para su difusión se usan los grandes medios de comunicación, destacando la emisión del programa de televisión “Sustraia”, los programas de radio, artículos en periódicos; revistas agrarias (“Sustrai”); organización de Ferias, Concursos y Exposiciones.

– Otros se centran en las personas que realizan sus actividades en un mismo sector productivo, siendo los mensajes en este ámbito más especializados. El baserritarra recibe en su domicilio cartas, circulares, avisos, hojas divulgadoras.

– Mayor efectividad se logra con los métodos de divulgación dirigidos a grupos de personas más reducidos (formados por la autoeliminación o autoexclusión de todos los que realizan su trabajo en una misma actividad). También los objetos de divulgación tanto en las diferentes fases de la producción como en la aplicación de técnicas son mucho más concretos.

Por otro lado también se realizan reuniones de información-discusión con grupos de baserritarras y demostraciones técnicas, de métodos, de sistemas, de resultados, en las que los asistentes tienen ocasión de ver en acción lo propuesto.

Otras formas de divulgación utilizadas están constituidas por dos o más métodos como los viajes Colectivos a Centros de interés fuera de nuestro Territorio, los “Días de Campo”, utilizando como base las explotaciones de Bizkaia que presentan una evolución deseable.

Las dudas o consultas de los baserritarras se resuelven a nivel personal en sus caseríos, en las Oficinas Comarcales Agrarias, por teléfono o por medio de cartas personales.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **02. Nekazaritza**<br>**02. *Agricultura*** | **02.** Nekazaritzako Garapena<br>**02.** *Desarrollo Agrario* | **530.102** Nekazaritzako Ustiategiak Arrazionaltzea eta Gaikuntza<br>**530.102** *Racionalización de Explotaciones y Capacitación Agraria* |

"Edozein berrikuntza, edozein hobekuntza, baldin eta Bizkaiko baserritarrentzat interesgarria bada, nahikoa epe laburrean eman daiteke jakitera."

Ekoizpen sistema lehiakorrak erabilita ere, baserria unean uneko informaziorik ezean zaharkitu egingo da edo, are okerrago, beraren ekoizpeneko egiturak eta aparatuak itxuragabetu egingo dira.

## 2. Nekazaritzako ustiategien errazionalizazioa.

Landa Garapenaren Europako Nekazaritzako Funtsaren (FEADER) bidez landa garapenari laguntza emateari buruzko 1698/2005 Araudiaren eta Batzordeak emandako 1974/2006 Araudiaren (EE) bitartez, ezarri egiten dira Europako Erkidegoan diseinatutako nekazaritza politika aplikatzeko xedapenak eta hura finantzatzeko berariazko funts komunitarioa sortzen da.

Martxan jarri beharreko neurriak plangintzaren xede izan behar dira araudiak hala agintzeagatik. Ondorio horietarako egin zen Euskal Herriaren Landa Garapen Iraunkorrerako 2007-2013ko Plana (LGIP), neurrien plangintza bildu duena eta Europako Batzordeak 2008ko otsailaren 15eko 704 zk.ko Erabakiaren bidez onetsi duena.

Araudi berrian, programa honetan sartutako neurriak 1. ardatzean sartuta daude: "Nekazaritza eta basoen sektoreko ekoizpena areagotzea". Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 8ko 133/2008 Dekretua aipatutako erkidegoko araudia oinarri hartuta argitaratu ostean, Bizkaiko Lurralde Historikoko nekazaritzako ustiategiei laguntzak emateari buruzko azaroaren 11ko 166/2008 Foru Dekretua landu da. Horrek, argitaratutako araudia garatuz eta

"Cualquier novedad, cualquier mejora, que pueda interesar en el agro bizkaino, es susceptible de ser divulgada en un espacio de tiempo relativamente corto".

Aún los caseríos que en estos momentos están siguiendo sistemas de producción competitivos, si les falta una información puntual, con el tiempo llegarán a quedarse obsoletos, o lo que es peor se producirán deformaciones en sus esquemas y aparatos productivos.

## 2. Racionalización de Explotaciones Agrarias.

Mediante el reglamento (CE) 1698/2005 del Consejo relativo a la ayuda al Desarrollo Rural a través del Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER) y el Regalmento (CE) 1974/2006 de la Comisión se establecen las disposiciones de aplicación de la política agraria diseñada en la Comunidad Europea y se crea un fondo específico comunitario para su financiación.

Las medidas a poner en marcha han de ser objeto de planificación por mandato reglamentario. A estos efectos se elaboró el Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2007-2013 (PDRS) en el que se recoge dicha planificación, aprobada por la Comisión (2008) 704, de 15 de febrero de 2008.

En la nueva reglamentación las medidas incluidas en este Programa se encuentran incluidas en el Eje 1 "Aumento de la productividad del sector agrícola y forestal". Tras la publicación del Decreto del Gobierno Vasco 133/2008 de 8 de julio, en base a la normativa comunitaria citada ha sido elaborado el Decreto Foral 166/2008, de 11 de noviembre, sobre Ayudas a las Explotaciones Agrarias en el Territorio Histórico de Bizkaia que desarrollando y aplicando la normativa publicada establece los regímenes de

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **02. Nekazaritza**<br>**02. *Agricultura*** | **02.** Nekazaritzako Garapena<br>**02.** *Desarrollo Agrario* | **530.102** Nekazaritzako Ustiategiak Arrazionaltzea eta Gaikuntza<br>**530.102** *Racionalización de Explotaciones y Capacitación Agraria* |

aplikatuz, nekazaritzako ustiategiak modernizatzeari babesa emateko araubideak ezartzen ditu.

Hurrengo bi laguntza eta neurri ildoak ezarri dira:

- Nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko laguntzak.
- Nekazari gazteak instalatzeko laguntzak.

Nekazaritza ustiategien modernizazioari laguntzeko, berariazko hurrengo helburuak lortu nahi dira:

- Ustiategiko ekoizpena merkatuko beharretara egokitzera zuzendutako inbertsioen alde egitea, batez ere ekoizpenen kalitatea hobetzen laguntzen duten inbertsioak, elikagaien segurtasuna sendotzen dutenak eta ekoizpenen trazabilitatea ahalbidetzen dutenak. Ekoizpenak sasoikakoak izatea mugatu behar da edota ekoizpenen normalizazioa eta aurkezpena ahalbidetu.
- Ustiategien errentagarritasuna hobetzera zuzendutako inbertsioen alde egitea, batez ere hurrengoen alde: ekoizpen kostuak eta energiaren gastua murrizten laguntzen duten inbertsioak, ekoizpenak areagotzea (hala badagokio), abereen hobekuntza genetikoak edota ekoizpenak aniztea, elikadurakoak ez direnak barne.
- Ustiategi bateko ekoizpen gaitasuna areagotzera zuzendutako inbertsioen alde egitea, horiek eragina izan dezaten ustiategiaren etekin orokorraren hobekuntzan, batez ere lurrak, makineria eta instalazioak erosteko inbertsioak.

apoyo a la modernización de las explotaciones agrarias.

Se establecen las siguientes dos grandes líneas de ayudas:

- Ayudas a la modernización de las explotaciones agrarias.
- Ayudas a la instalación de jóvenes agricultores y agricultoras**.**

En la ayuda a la modernización de las explotaciones agrarias se persiguen los siguientes objetivos específicos:

- Favorecer las inversiones orientadas a la adaptación de la producción de la explotación a las necesidades del mercado, en especial las inversiones que contribuyan a una mejora de la calidad de las producciones, a reforzar la seguridad alimentaria y la trazabilidad de las producciones, a limitar la estacionalidad de las producciones y/o a la normalización y presentación de las producciones.
- Favorecer las inversiones orientadas a la mejora de la rentabilidad de las explotaciones, en especial las inversiones que contribuyan a la reducción de costes productivos, reducción del gasto energético, incremento de productividades (en su caso), mejoras genéticas del ganado y/o diversificación de producciones, incluidas las no alimentarias.
- Favorecer las inversiones orientadas a incrementar las capacidad productiva de una explotación que redunden en una mejora del rendimiento global de la explotación, en especial las inversiones en compra de tierras, maquinaria e instalaciones.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **02. Nekazaritza**<br>**02.** ***Agricultura*** | **02.** Nekazaritzako Garapena<br>**02.** *Desarrollo Agrario* | **530.102** Nekazaritzako Ustiategiak Arrazionaltzea eta Gaikuntza<br>**530.102** *Racionalización de Explotaciones y Capacitación Agraria* |

- Ingurumen iraunkortasunaren, laneko segurtasunaren, higienearen eta animalien ongizatearen alde egitera zuzendutako inbertsioen alde egitea.

- Ustiategiaren enpresa kudeaketa hobetzera zuzendutako inbertsioen alde egitea.

Nekazari gazteen instalazioei laguntzeko laguntza ildoan, laguntzak ematen dira gaitasun eta prestakuntza profesional egokia duten 18 urtetik 40ra bitarteko nekazari gazteak nekazaritzan has daitezen.

Gazteak ustiategietako titular izatera erakartzeko Bizkaiko Gaztenek Plana aplikatzen segituko da, eta laguntzak nabarmenki areagotuko dira. Plan horren barruan hainbat neurri hartu dira; aipagarrienak, berritzaileenak diren aldetik, honako bi hauek lirateke:

1. Nekazari gazteari begirale zein tutore bat jartzen zaioneko sistema; sistema honekin urgazpen teknikoko zerbitzua finantzatzen da, gazteari nekazaritza jardueran ezartzeko ibilbidean laguntzeko begirale edota tutore bat esleitzen zaio.

2. Nekazaritza arlora gerturatzeko bekak, izan ere, deialdi honen bidez nekazaritzan jarduteko interesa daukaten eta nekazaritzako hezkuntza denbora amaituta daukaten gazteei nekazaritzan dauden ustiategietan esperientzia har dezaten ahalbidetu nahi zaie.

LGIP 2007-2013an islatutako nekazaritza politika komunitarioaren gidalerroak jarraituz, nekazaritzako ustiategiei laguntzeko beste neurri batzuk martxan jarri dira, adibidez:

- Nekazariek aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntza (12/2009 Foru Dekretua). Bertan, laguntzak ematen dira ustiategiaren etekin orokorra hobetzera

- Favorecer las inversiones orientadas a favorecer la sostenibilidad ambiental, la seguridad laboral y la higiene y bienestar de las animales.

- Favorecer las inversiones orientadas a mejorar la gestión empresarial de la explotación.

En la línea de ayudas a la instalación de jóvenes agricultores se conceden ayudas para facilitar la instalación de jóvenes que estén entre 18 y 40 años y que posean la capacidad y competencia profesional adecuada.

Con objeto de rejuvenecer la titularidad de las explotaciones se va a continuar con la aplicación del Plan Gaztenek en Bizkaia incrementándose notablemente las ayudas. Dentro de este plan se han asumido varias medidas entre las que destacan las dos siguientes:

1. Sistema de monitorización y tutorización del joven agricultor, por el cual se financia un servicio de asistencia técnica para ayudas al joven en su itinerario de instalación en la actividad agraria, asignándole un monitor y/o tutor.

2. Becas de acercamiento al sector agrario, ya que se pretende dotar de una experiencia de trabajo en explotaciones agrarias existentes a jóvenes con intención de instalarse en la actividad agraria y que tengan finalizado su periodo de formación agraria.

Siguiendo las directrices de la política agraria comunitaria plasmada en el PDRS 2007-2013 se ponen en marcha otra serie de ayudas a las explotaciones agrarias como son:

- Ayudas a la utilización de servicios de asesoramiento por parte de los agricultores y agricultoras (D. Foral nº 12/2009) en el cual se destinan ayudas para hacer frente a los costes

zuzendutako aholkularitza zerbitzuak erabiltzeagatik sortutako kostuei aurre egiteko. Aholkularitza horrek aukera ematen du ezagutza zabalagoak emateko hurrengoak bezalako gaietan: nekazaritzako baldintzak eta praktika egokiak, trazabilitatea, laneko segurtasuna, garapen iraunkorra, animalien higienea eta ongizatea, kudeaketa tekniko-ekonomikoa eta ustiategiko nekazaritza eta ingurumen kontratua.

- Mendiko Nekazaritza zonaldeetan, zonalde ahuletan eta berariazko mugak dituztenetan naturaren zailtasunak orekatzera zuzendutako laguntzak (115/2008 Foru D. eta 39/2009 FD). Laguntza honen xede nagusia nekazariak konpentsatzea da, naturaren aldetiko eragozpenak dituzten zonaldeetan nekazaritzaren praktikak duen ekoizpen txikiagoaren errenta murriztapenagatik.

- Nekazaritzaren jarduera behar baino lehen uzteari laguntzak. Laguntza honek hurrengo helburuak lortzen lagunduko du:

  - Nekazaritza jarduera utzi nahi duten nekazariei uzte hori erraztea.
  - Nekazaritza ustiategietako lursailen mugikortasunaren alde egitea.
  - Nekazaritzaren sektorea gaztetzeari buruzko berariazko helburuak osatzea.

- Laguntzak onartzea, nekazaritza ustiategietan ordezkapen zerbitzuak ezartzeko. Horien joera hurrengo helburuak lortzea izango da:

  - Nekazaritzako jarduera lan nagusi gisa duten titularren lan eta bizi baldintzak hobetzea.

ocasionados por la utilización de servicios de asesoramiento destinados a mejorar el rendimiento global de su explotación, que permita dotarles de conocimientos más amplios en temas tales como la condicionalidad y buenas prácticas agrarias, trazabilidad, seguridad laboral, desarrollo sostenibles, higiene y bienestar de los animales, gestión técnico-económica y contrato agroambiental de explotación.

- Ayudas destinadas  a compensar las dificultades naturales en zonas de Agricultura de Montaña, desfavorecidas y con limitaciones específicas (D. Foral nº 115/2008 y D.F. nº 39/2009). Esta ayuda tiene por objeto principal compensar a los agricultores/as por la disminución de renta que supone la menor productividad de la práctica agraria en zonas con handicaps naturales.

- Ayudas al cese anticipado de la actividad agraria; esta ayuda contribuirá a la consecución de los objetivos siguientes:

  - Facilitar el cese de aquellos agricultores/as que deseen abandonar la actividad agraria.
  - Favorecer la movilidad de las tierras de las explotaciones agrarias.
  - Complementar los objetivos específicos relativos al rejuvenecimiento del sector agrario.

- Ayudas para el establecimiento de servicios de sustitución en las explotaciones agrarias. que tenderán al logro de los siguientes objetivos:

  - La mejora de las condiciones de trabajo y de vida de los/as titulares con dedicación principal a la actividad agraria.

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **02. Nekazaritza**<br>**02. *Agricultura*** | **02.** Nekazaritzako Garapena<br>**02.** *Desarrollo Agrario* | **530.102** Nekazaritzako Ustiategiak Arrazionaltzea eta Gaikuntza<br>**530.102** *Racionalización de Explotaciones y Capacitación Agraria* |

- Babesa nekazaritzako ustiategiei, ustiategiaren titularraren eta langileen zerbitzua emateko gaixotasun, amatasun, opor edo asteko atseden kasuetan. Horrela, nekazarien bizi kalitatea areagotuko da.

Halaber, eta ustiategiaren segurtasuna areagotzeko aldizka ageri diren natur elementu kaltegarrien aurrean, arrisku horiek murriztu nahi dira nekazaritzako aseguru primentzako diru-laguntzak ematearen bitartez.

Bizkaiko Lurralde Historikoko ekoizpenetan aplikatuko diren Europar Batasunaren Nekazaritza Politikaren Merkatuko Erakunde Komunei dagokienez, eta FEAGA-Bermeak finantzatutako laguntza zuzenen kudeaketa eskualdatzen denetik aurrera, nekazaritza errenten osagarri hauen ordainketak izapidetzen dira ekoizleentzako ordainketa bakarreko primen bitartez:

- Behi ume-hazleak
- Kalitatezko okelaren gehigarria
- Behi ume-hazleen gehigarria
- Alde zaurgarrietako esnekiak
- Kalitatezko esne-markak merkaturatzea
- Ardi-azienda eta ahuntz-azienda, kalitatezko ekoizpena bermatzen duten izenduren itzalpean
- Ardi-azienda: erakunde elkartuak
- Ahuntz-azienda: alde behartsuak

- El apoyo de las explotaciones agrarias para la prestación del servicio del/la titular y de los trabajadores de la explotación en caso de enfermedad, maternidad, vacaciones o descanso semanal, para de esta forma aumentar la calidad de vida de los agricultores.

Asimismo y en orden a la seguridad de las explotaciones contra los elementos naturales que periódicamente les azota se pretende minimizar dichos riesgos mediante la subvención a las primas de seguros agrarios.

En relación con las Organizaciones Comunes de Mercado de la Política Agraria Comunitaria que se aplican en producciones del Territorio Histórico de Bizkaia, y a partir del traspaso de la gestión de las ayudas directas financiadas por el FEAGA-Garantía, se están gestionando y tramitando los pagos de los siguientes complementos de rentas agrarias mediante las siguientes Primas de Pago Único:

- Vacas nodrizas
- Adicional carne de calidad
- Adicional vacas nodrizas
- Lácteos de zonas vulnerables
- Comercializan marcas de calidad de leche
- Ovino-caprino amparado por denominaciones de producción de calidad
- Ovino entidades asociadas
- Caprino zonas desfavorecidas

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **02. Nekazaritza**<br>**02.** ***Agricultura*** | **02.** Nekazaritzako Garapena<br>**02.** *Desarrollo Agrario* | **530.102** Nekazaritzako Ustiategiak Arrazionaltzea eta Gaikuntza<br>**530.102** *Racionalización de Explotaciones y Capacitación Agraria* |

Prima horiek, bada, Europako Batasunak finantzatzen ditu oso-osorik, eta errentaren osagarri garrantzitsuak dira okelatarako behi-azienda edota ardi-azienda ekoizten duten ustiategietarako, primen helburua ekoizleek jardueragatik jasotako errentak parekatzea baita.

Estas primas financiadas en su totalidad por la Unión Europea suponen un importante complemento de las rentas de las explotaciones de vacuno de carne principalmente y de ovino y su objetivo es el de equiparar las rentas recibidas por los productores por su actividad.

Prima eta laguntza horien kudeaketa eta kontrola errazteko xedeaz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Ustiategien Erregistroa ezarri da, jardunean dauden eta urteroko azalera-aitorpena egiten duten Bizkaiko ustiategiei buruzko informazioa jasotzeko.

Con objeto de facilitar la gestión y el control de la concesión de las citadas primas y ayudas se instaura el Registro de Explotaciones del Territorio Histórico de Bizkaia, en el cual se recoge la información relativa a todas aquellas explotaciones en activo de Bizkaia que realizan la Declaración de Superficies anual.